


ESKOLA PUBLIKOA

BPG
% **6**
BEHINGOZI!



Diru publikoa,
publikoarentzat

Irudika dezagun % 6rekin zer egin litekeen



STEILASetik aurrera jarraitzen dugu "Diru publikoa, publikoarentzat" kanpainarekin Nafarroan. Haren helburua hezkuntzara bideratzen den BPGaren (Barne Produktu Gordinaren) ehuneko gutxienez egungo % 3,4tik % 6ra handitzeko premia ikusaraztea da, UNESCOren eta beste erakunde ofizial batzuen gomendioei jarraikiz.

Nahiz eta aurtengo aurrekontuetan nabarmen handitu hezkuntzarako partidak (2018an baino 33 milioi -% 5- gehiago), eta Departamentuko organo eskudunek urtero baliabide gehiago jarri (2015etik hona % 13,7 igo da), garrantzitsua da inbertsioetan Europako mailetara iristea gure sistema publikoa hobetzeko ildo estrategikoak gauzatzeko, oraindik ere haietatik urrun baikaude.

Horretarako, **STEILAS** sindikatuan funtsezkotzat jotzen dugu eskola publikoa behar adina tresna ekonomikoz hornitzea. Horietan garrantzitsuena dugu Hezkuntza Publikoa Finantzatzeko Legea, gorabehera politiko eta ekonomikoetatik at egoteko aukera emango duena, eta gutxieneko zenbateko bat ezartzea lehentasunezko ardatz hauek abian jartzeko:



Irakaskuntzako ratioen murrizketa.

Sindikatuaren ustez, ratioak dira aniztasuna artatzeko eta hezkuntza hobetzeko lehenengo irizpidea, irakasle/ikasle dedikazio denbora handitzeko aukera ematen baitute. Horregatik, positibotzat jotzen dugu legegintzaldi honetako Haur eta Lehen Hezkuntzako 25 ikasleko eta Bigarren Hezkuntzako 30 ikasleko murrizketa, baina ratioak nabarmen murrizten jarraitzearen alde egiten dugu. Izan ere, helburua da lortzea ikasleen aniztasunarekin eta egun ezartzen ari diren irakaskuntza estrategia didaktiko berriein bat etorriko den arreta ematea.

Ikaskuntza jarduera manipulatio eta esperimentalagoak dituzten irakaskuntza metodologia berriak txertatzeak berekin dakar ratio egokiak ezartzea, irakasleek bakarka edo talde txikietan arta ditzaten ikasleak eta, bestetik, gaur egun hain beharrezko den hezkuntza sormena eta berrikuntza abian jartzeko nahikoa tresna eta material edukitzea.



Eskubide bereziak dituzten ikasleei laguntzeko langile gehiago.

Nafarroako Aniztasuna Artatzeko Planaren egungo garapenak berekin dakar nahikoa zuzkidura ekonomiko izatea premia bereziak dituzten ikasleak artatzeko eta berandu sartu diren, ikasteko zailtasunak dituzten edo goi mailako gaitasunak dituzten ikasleak artatzeko.

Premia bereziak dituzten ikasleen kopurua % 28,06 hazi da Nafarroan 12/13 ikasturtetik 16/17 ikasturtera, besteak beste, curriculum egokitzapenak dituzten ikasle guztien inklusioa dela eta.

Nafarroako geletako aniztasuna gero eta handiagoa da, eta horrek hainbat onura dakartza ikasleen garapen integralari begira. Nolanahi ere, abantaila horri erabateko etekina ateratzeko eta etekin horrek komunitate osoan izateko eragina, ezinbestekoak dira baliabide ekonomikoak, irakasleei denbora gehiago emango diotenak Orientazio eta Laguntza taldeekin batera plan individualizatuak eta ikasle bakoitzarentzat berariazko materialak prestatzeko, baita pertsona bakoitzaren ezaugarri zehatzei buruzko trebakuntza jasotzeko ere.



Hizkuntzen irakaskuntza integratuko eredu berria.

Laukoak sinaturiko gobernu akordioak hizkuntzen irakaskuntza integratuko eredu berri bat garatzea aurreikusten zuen. Era berean, Hezkuntza Departamentuak "Eleaniztasuna. Bertatik mundura" izeneko jardunaldiak antolatu zituen joan den ikasturtean, Nafarroako irakaskuntzan eredu berri bat ezartzeko helburuz.

Eredu berri horrek prestakuntza gehiago eskatzen du irakasleen aldetik, bai prestakuntza pedagogikoa, bai hizkuntzaren ingurukoa; eta koordinazio gehiago, irakasgai bakoitzean eginiko esku hartzeak modu integratuan indartzeko eta ikasleen eleaniztasunerako gaitasuna areagotzen laguntzeko. Tratamendu integratu horrek ikasgelan irakasle bat baino gehiago egotea ere eska dezake, hizkuntza bat baino gehiago batera lantzeko, arloz gaindiko proiektuen bidez. Argi dago metodologia horrek irakasle gehiago prestatzea eta koordinatzea eskatzen duela eta, ondorioz, kontratazio gehiago egitea.

Eredu berri horrek hizkuntza demokrazia ere eskatzen du, ezin baita gizarte kohesionatu bat eraiki Nafarroako ikasleen % 60 euskararen ikaskuntzatik at gelditzen denean. Horregatik, ezinbestekoa da eredu berri hori berezko hizkuntzen ezagutzan oinarritzea, atzerriko hizkuntzak integratuta, bai nazioartean gehien erabiltzen direnak, bai gero eta anitzagoak diren gure ikasgeletan entzun ditzakegunak.

Atzerriko hizkuntza bat ikastea partekaturiko helburu bat da, baina ezin dira gizarteak hizkuntza horien ikaskuntzaren inguruan dituen itxaropenak manipulatu, euskararen gizarte eremua eta eremu geografikoa murrizteko xedez.



Haur Hezkuntzako lehenengo zikloaren kudeaketa bateratua.

Bizitzako lehenengo urteak funtsezkoak dira pertsonen ondorengo garapenerako. Hazkuntza alderdi biologiko, sozial eta afektiboen arteko elkarreragin sare konplexu bat da, eta haurrak rol aktiboa betetzen du bertan, bere garapenean. Hezkuntzako etapa garrantzitsuena da, eta ikastetxea dugu lehen haurtzaroko gaitasunak babesteko eta garatzeko gunea.

Legegintzaldi honetan, gobernuak hobetu egin ditu familien tarifak, 0-3 zikloko tasak % 1,13 eta % 63 artean murriztuta 2017/2018 ikasturtean, Hezkuntza eta Gizarte Eskubideen Departamentuen arteko aurrekontuaren 1.315.000 euroko igoerari esker, eta ia gorakada bera izan du 2018ko eta 2019ko ekitaldietan.



Nolanahi ere, oraindik bide luzea dago aurretik, 0-3 zikloa hezkuntza ziklotzat jo arte. Behar beharrezkoa da haur eskola guztiak arautuko dituen araudi bat ezartzea, baita gutxieneko betekizun duin batzuk ere, bai haurrentzat, bai profesionalentzat.

Ezinbestekoa da Nafarroako Gobernuak beharrezko urratsak ematea doakoak eta unibertsalak diren ikastetxe publiko guztak batera kudeatu ahal izateko eta, horretaz gain, Nafarroako bi hizkuntzen ezagutza bermatzea: euskara eta gaztelania.



Sektore publikotik kudeaturiko etengabeko prestakuntza.

Helduei zuzendutako lanbide espezializatuko programak lehentasunezkoak dira, herritarrei lana bilatzen lagundu nahi dien edozein hezkuntza sistemarentzat. Dena den, **STEILAS** sindikatuarentzat ezinbestekoa da prestakuntza hori eremu publiko doakotik eskaintzea, pertsona gehienek eskuragarri izango duten errealitate bat izan dadin, UNESCOk 2020. urterako eremu estrategikoei buruzko txostenean adierazitakoaren ildotik.

Lanik gabe dauden pertsonen edo lan aukerak zabaldu nahi dituztenei zuzenduriko prestakuntza eta birkualifikazioa erakunde pribatuen edo sindikatuen esku uzteko gero eta joera handiagoak zerbitzuen opakotasuna eta garestitzea sustatzen du. Unibertsitate publikoek eta irakasleentzako laguntza zentroek kudeatu beharko lukete etengabeko prestakuntza, modu garden eta doakoan.

Bestalde, irakaskuntza teknikoek, esaterako Lanbide Heziketak, tratamendu berezitua izan behar dute, behar adinako baliabide materialekin eta giza baliabideekin hornitzeko, berrikuntzaren aldeko apustua egitea ahalbidetuko duen makineria berritzeko eta irakaskuntza horietan diharduten profesionalen prestakuntza eskaintza areagotzeko, betiere prestakuntzaren eta baliabideen kudeaketa publikotik, eta hura esku pribatuetan utzi gabe.

Azken ikasturteetan zehar gure erkidegoko LHko zikloen eskaintza handitu eta inbertsioak gora egin badu ere, oraindik badira zenbait erronka aurrean; esaterako, bide hori lanbide gisa hautatzen duen ikasle kopurua areagotzea, edo prestakuntza ziklo gehiago eskaintzea euskaraz.



Hezkuntzara zuzendutako ekipamenduen eta eraikinen modernizazioa.

Azken urteetan ikastetxeetan inbertsiorik egin ez denez, ikastetxeek instalazio narriatu eta zaharkituak dituzte, funtsezko zerbitzu batek, hezkuntzak alegia, merezi duen kalitate mailatik oso urrun. Arazo hori gero eta handiagoa da eta, horren aurrean, Departamentuak ikastetxeak premia hobetzeko eta eraikitzeko Azpiegituren Plan Gidari batean zentratu zituen bere ahaleginak. Planari esker, 2015ean inbertituriko 5,9 milioietatik 2017-2019 aldiko 59,6 milioira igaro zen eta, guztira, 12 ikastetxe berri eraiki, 11 zabaldu eta jarduketa puntualak egin dira beste bederatzitan.

Komunak eta leihoak zaharberritzeko premia larria izanik ere, **STEILAS**etik eskatzen dugu aintzat har daitezela, halaber, eraginkortasun energetikoko irizpideak, eta ingurumena suspertzeko eta espazioak zabaltzeko printzipioak, baita erlaxazioa eta lasaitasuna sustatzekoak ere.

Irakaskuntza materialei eta material suntsigarriei dagokienez, ikastetxeen funtzionamendurako partida ekonomikoak areagotzen jarraitu behar da; izan ere, nahiz eta legegintzaldiaren hasieratik iguera % 60koa izan, ez dira nahikoa helburu hoberenak lortzeko, ikastetxe bakoitzeko urteko 1.000 euro eskasak ere murriztu baitira.

Era berean, premiazkoa da altzariak berritzea eta metodologia berriei eta ikasleen berariazko beharrei egokiturikoak erostea.



Jangela hezigarriak, ekologikoak eta tokiko produktuak erabiltzen dituztenak.

Gure erkidegoko errealitatea nahiko kaxkarra da eskoletako jangelei dagokienez; alde batetik, ikastetxe gehienek kanpoan kontratatzen dute zerbitzu hori eta, bestetik, zaharberritutako ikastetxeetan ez da sukaldarik jartzen.

Horretaz gain, zerbitzu horiek ematen dituzten enpresak hautatzeko irizpideak ekonomikoak baizik ez dira, eta alde batera uzten dituzte produktuaren hurbiltasunarekin, ekoizpen ekologikoarekin edo langileen lan baldintzekin loturiko guztiak.

Horren ondorioz, produktua kalitate eskasekoa da eta jangelako langileek beta gutxi dute hurrei kasu egiteko. Beraz, estresa sortzen da ikasleengan eta langileengan.

STEILASen ustez, Hezkuntza Departamentuak langileen baldintzei eta erabilitako produktuaren kalitateari buruzko azterketa sakona egin beharko luke, eta baliabide ekonomikoak eman beharko lituzke jangelako denbora ere heziketa garai bihurtu dadin ikasleentzat.



Garbiketa zerbitzuak publiko egitea.

Gogorarazi beharra dago, bestalde, ikastetxeetako espazioen garbiketan jarduten duten langile gehienak enpresa pribatuek kontratatzen dituztela, Gobernuak bere erantzukizuna haiei eskuordetu ondoren, baina langileei ezartzen dizkieten baldintzak urrun daude duinak izatetik. Horregatik, sindikatuak zerbitzu horiek publiko egitea aldarrikatzen du, baita osasunarentzat kaltegarriak diren substantziak erabiltzea galaraziko duen berariazko araudi bat onartzea ere.



Eskola baratzeak eta ingurumen heziketa integrala.

Nafarroako ikastetxeetan baratzeak sortzeko joera gero eta handiagoak aditzera ematen du irakasleak benetan kontzientziatuta daudela ingurumen hezkuntzarekin. Nolanahi ere, gure ustez, aldaketa hori integrala izan dadin, ezinbestekoa da ikastetxeetan ingurumen kudeaketaren ardatz guztiak bilduko dituzten ingurumen hezkuntzako programak abian jartzea: ahal den hondakin gutxien sortzea eta haiek eta haiek tratatzea, mugikortasuna eta irisgarritasuna, energia eraginkortasuna, kutsadura atmosferikoa, uraren kudeaketa, ingurumen zarata eta ingurune naturala.



Dokumentu hori Nafarroako Gobernuaren departamentuen zuzeneko laguntzarekin ezarri beharko litzateke ikastetxeetan, beharrezko baliabide pertsonal eta ekonomikoak dituen hedadura handiko programa bat abian jarrita, premia hori irakasleentzako eta ikasleentzako zama osagarri bat ez bihurtzeko, bai, ordea, gizarte jasangarriago bat lortzeko bidean ikastetxeak, familiak eta komunitate osoa modu ludiko eta hezigarrian inplikaturiko dituen jarduerak bat izan dadin.



Hezkidetzako gune gehiago.

Aldaketak egin behar dira, halaber, erabilera askeagoko espazioetan, hala nola jolastokiak, komunak eta aldagelak, zeinak argi eta garbi banatuta egoten diren sexuaren/generoaren arabera, edo zeinetan botere harreman ikusezinek baina gizartean oso errotuek agintzen duten. Ezinbestekoa da gune horiek pertsona guztientzako leku bihurtzea, haien ezaugarriak gorabehera, guztiak izan dezaten beren lekua eta adierazpen askatasunerako aukera berberak, egiazko hezkidetzako giroan.

Lerro hauen bitartez argi gelditu denez, erronka ugari ditugu aurrean gure hezkuntza sisteman: haur eskolak publiko egitea, ratioak murriztea, eskolako jangela hezigarriak, sistema publikoetatik kudeaturiko etengabeko prestakuntza, eraikinen modernizazioa, hezkidetzako espazioak, harremanetan diren hizkuntzak uztartuko dituzten metodologiak, ikasleei laguntzeko irakasle gehiago...



Baina hezkuntza sektoreak ez ditu baliabide ekonomiko gehiago behar dituzten neurriak bakarrik faltan somatzen. Hala, gai ugari ditugu hausnarketarako: gehiegizko burokratizazioa, irakasleen denbora xurgatu eta ikasleengan erabili beharreko indarra murrizten duena; ebaluazioari ematen zaion gehiegizko garrantzia, nonahi estres izugarria sortzen duena eta benetako irakaskuntza uneak mugatzen dituena; edo "kalitate" sistema gainkargatuak, maizegi eskolako harremanak bakantzen dituztenak.

Bitartean, Nafarroako hezkuntza publikoko sistemarentzat BPGaren % 6a blindatuko lukeen Hezkuntza Publikoa Finantzatzeko Legeak berekin ekarriko lukeen oxigeno poltsa mahai gainean jarri beharreko benetako premia da, eta **STEILAS**etik horren alde borrokatzen jarraituko dugu, ordezkapena dugun foro guztietan.

Diru publikoa, publikoarentzat



Diru publikoa, publikoarentzat

Berriki sinatu dugun irakaskuntza publikoaren kalitatea hobetzeko ituna garatzeko ezinbestekoa da nahiko baliabide ekonomiko izatea, hortaz, eskola publikoa finantzatzeko legea behar dugu, honen diru partidak ez egoteko uneko abagune ekonomikoen eta politikoen menpe.

Nafarroan

aurrekontuaren % 16 gastatzen da Hezkuntzan, Estatu espainiarreko **ehunekorik txikiena**.

Kopuru

absolutuetan, aurtun **35 milioi euro gutxiago** gastatuko dira 2010ean baino. Kontsumoko Prezioen Indizearen (KPI) igoera kontuan hartuko bagenu, ikusiko genuke desinbertsioa askoz ere handiagoa dela kopuru baliokidetan.

Unescok

gomentatzen du BPGren % 6 inbertitu behar dela Hezkuntzan gutxienez eta hori da **STEILAS**en helburua, egoera bidegabe hau behingoz gainditzeko.

Bestalde,

irakaskuntza pribatu itunduak finantziario bermatua du LOMCEren bidez. Honi gehitu behar zaizkio kuotak eta bestelako finantziario publikoa.

2010. urtean

Barne Produktu Gordinaren (BPG) % 3,6 gastatu zen Hezkuntzan Nafarroan, **2018an % 3,2ra** jaitsi da eta Estatu espainiarreko batez bestekoarekin alderatuta, 9 hamarreko gutxiago da.

Irakasleek,

gaineko langile publiko guztiek bezala, **erosahalmena** galdu dugu, batz bestea % 20 azken urteotan.

Horregatik guztiarengatik, eskola publikoa finantzatzeko legea behar dugu orain.



% 6 behingoz!

